




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS, GURE
ADISKIDEA**

A SAIOA
HAURREN KATEKESIA PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**JESUS, GURE
ADISKIDEA
(MK 10,14)**

1. Helburua

- Jesusen bizitzaren eta bere mezuaren oinarrizko uneak ezagutu eta kontatu.

2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. 1. helburua, Jesusen bizitzaren eta bere mezuaren oinarrizko uneak ezagutu eta kontatu.
- HITZA ETA OTOITZA ALDERDIA. 1. helburua, oinarrizko otoitzak ikasi.
- ELKARTEA ALDERDIA. 1. helburua, katekesiko taldea, topagunea.
- BIHOTZ-BERRITZEA ALDERDIA. 1. helburua, Jesusen jarraitzaile izaten ikasi.

3. Saioak

- A saioa hurren katekesirako parrokian.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saiaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

A SAIOA HAURREN KATEKESIA PARROKIAN



Motibazioa

- Hurrei eta beren familiei Jesus nor den ezagutzera eman.



Azpimarrak

- Haur eta familiei Jesus nor den aurkeztu.
- Jesusen bizitzako hainbat gertaeren hasierako ezagutza.



Idea nagusiak

- Landuko dugun idazkian (**Mk 10, 14**), hurrei berarengana hurbiltzen uzteko esango du Jesussek.
- Jesus, apurka-apurka ezagutuko dugun adiskidea.
- Jesus hurrei aurkeztu eta ezagutzeko eta haren atzetik jarraitzeko esan.



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

Hainbat amak Jesusengana eramaten zituen haurrak, honek bedeinka zitzan. Baina ikasleek Jesusengatik urrun eduki nahi zituzten haurrak, "ez gogait eragin Jesusi, ez duzue ikusten lanpetuta dagoena?", esanez. Baina Jesusek esan zien: "Utzi hurrei niregana etortzen".

"Zure Lehen Biblia", Giltza, 396 eta 397 orri.

Bideoak

Egin
klik irudiaren gainean
'Jesús nos enseña'
bideoa ikusteko



Jarduera

- Jesus, gure adiskidea (posterra).
- Nor da Jesus? Jesus,... da.
- Marrazkia: Jesus ezagutu nahi dugu."



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Kandela eta Gurutzearen seinalea.
- Otoitza: Jesus, Zu beti zaude gurekin.





Ezinbesteko lagungarriak

- 1. eranskina A3an.
- Kartulina. 2. eta 3. eranskinen kopiak.
- Guraizeak eta itsasgarria.
- Jainkoaren Hitza (faro txatalak), **Mk 1, 16-20**.
- Abestia, kandelak eta otoitza.

Denbora hartu saioaren dinamika ulertzeko eta behar izango dugun guztia alde zuzenetik prestatzeko.



Saioarako gida

Katekistarentzat...

Katekesiko gela girotu eta saioari hasiera emateko, katekistak prest izango du kartulinaran Jesusen posterra (1. eranskina, Fanoren argazkia, Jesus haurrak besarkatuz), **“Jesus, gure adiskidea”** esaldiarekin.

Saioa lau unetan banatuko dugu:

1. Unea. Agurra eta aurkezpena (15 min.). 1-3 urratsak.
2. Unea. Gaiaren azalpena, bideoak eta abestia (30 min.). 4-7 urratsak.
3. Unea. “Jesús nos enseña” abestia entzun.
4. Unea. Egindakoa jaso eta laburtu (otoitza eta ikasi dudana. 15 min.). 9-10. urratsak.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekistak harrera egingo die hurrei. Agurra eta ongi etorria.



1. Urratsa. Gaurko saioan, **‘nor da Jesus?’** galderari erantzunez Jesus nor den ezagutuko dutela azalduko die katekistak hurrei.



2. Urratsa. Jesusen posterra eta **“Jesus, gure adiskidea”** esaldia jasotzen dituen kartela erakutsiko diogu taldeari (1. eranskina).



3. Urratsa. **‘Nor da Jesus?’** dinamika garatuko dugu.

- Katekistak ‘nor da Jesus?’ galdera jasotzen duen kartulina erakutsiko die hurrei, berarekin galdera eginez (2. eranskinean agertzen den fitxa banatu).
- Ondoren, hurrek idatz edo esan dezatela Jesusi buruz dakitena (hitz edo esaldi batez).
- Bost minutu eman, hurrek beren hitz edo esaldia kartulinaran errotuladorez idatz dezaten (oraingorik idazteko zailtasunak badituzte, katekistak lagun diezaieke).
- Guztiek idatzi ondoren, katekistek hitz eta esaldi guztiak irakurri egingo dituzte eta, ondoren, gaia azalduko die.



Bigarren unea. Gaiaren azalpena



4. Urratsa. **Jesus da:** Katekistak saioaren hasieran erakutsi dien Jesusen posterrera begira jarriko ditu (ikus 2. urratsa).



5. Urratsa. **Jesus nor den** azalduko dugu.

- Datu biografikoak: non jaio zen, bere gurasoak nortzuk izan ziren, nola bizi izan zuen haurtzarora, nortzuk izan ziren bere adiskideak. Azalpen hauek emateko, **“Jesusez dakiguna”** materialaz baliatuko da katekista (‘Eranskina katekista eta eragileentzat’ agiria).



6. Urratsa. Katekistak 'Nor da Jesus?' esaldia jasotzen duen kartulina erakutsiko du.

- Kartulinaren atzealdean, 'JESUS... DA' idatzita egongo da.
- Une honetan, katekistek Jesusen bizitzaren datuak jasotzen dituzten paperezko tirak banatuko dizkie hurrei. Haur bakoitzak kartulinan itsatsiko du bere paperezko tira eta denen artean 'Jesus... da' murala osatuko dute. (Eranskina: paperezko 3 tira Jesusen datuekin)



7. Urratsa. Jesusen bizitza eta bere mezua:

- Hurrek Jesus gehiago ezagut dezatela.
- Orain katekistak, 6. urratsean ikusitakoa sendotzeko, bideoa ikusiko du hurrekin batera. Bideotako bat aukeratzea komeni da.
 - o A aukera, "Jesús nació en Belén" (1:57 min.).
 - o B aukera, "Los amigos de Jesús" (1:24 min.).

Bideoa ikusteko, irudian klikatu

A aukera



B aukera



Hirugarren unea. "Jesus nos enseña" abestia



8. Urratsa. "Jesus nos enseña" abestia entzungo dugu, Jesusek helarazi nahi digun irakaspena eta mezua geure egiten saiatzeko.

**Klikatu irudian
bideoa ikusteko**



Laugarren unea. Egindakoa jaso eta laburtu



9. Urratsa. Adierazpena.

- Katekistak Jesus hurrez inguratuta agertzen den marrazkia banatuko die hurrei (4. eranskina). Marrazki horretan, silueta bat zuriz agertzen da eta horrek taldekide bakoitza irudikatzen du.
- Katekistak etxean egin duten silueta ateratzeko eskatuko die ("Jesusen taldea gara" 1. Gaiaren barruan, etxean egin duten marrazkia itsas dezatela oraingo marrazki honetan, "... da nire izena eta Jesusekin nago" esaldia osatuz).
- Marrazki hau etxera eramango dute eta aita eta amari erakutsiko diote. Etxean, 'Katekesiaren txokoa' izeneko lekuan jarriko dute.



10 Urratsa. Adierazpena

- Kandela piztuko dugu (taldearen kandela, Jesus gure artean dela adierazteko zeinua).
- Isilunea egingo dugu eta Gurutzearen seinalea egiteko esango diegu hurrei (aurreko saioan ikasi dute baina, ondo dago nola egiten den gogoratzea). Ondoren, "Jesus, Zu beti zaude gurekin" otoitza egingo dugu denok batera.

"Jesus, Zu beti zaude gurekin"

Familian, parrokian, katekistekin,
ikastetxean eta beste hainbat lekutan,
Zu ezagutzeko eta kristau bezala bizitzen ikasteko
aukera dugu.
Eskerrik asko, Jesus!

I. Eranskina



II. Eranskina



JESUS DA



JESUS DA



JESUS DA

ERANSKINAK HAURREN KATEKESIRAKO PARROKIAN

III. Eranskina

JESUS BELENEN JAIO ZEN, ASKA BATEAN

MARIA ETA JOSE ZIREN BERE GURASOAK

OHIKOA ZENEZ, GURASOEK JERUSALEMEKO TENPLURA
ERAMAN ZUTEN, JAUNARI AURKEZTEKO

BESTE BATZUEKIN BATERA BIZITZEA ETA BANATZEA DU

NAZARETEN BIZI IZAN ZEN 30 URTEZ, AMA ETA AITAREKIN. AMAREN
ALDEKO AITON-AMONAK, JOAKIN ETA ANA IZAN ZIREN

JERUSALEMERA ERROMES JOATEN ZEN

JOAN BATAIATZAILEA JESUSEN LEHENGUSUA DA, ISABEL
BERE IZEBAREN SEMEA. JOANEK JESUS BATAIATU ZUEN JORDAN IBAIAN

JESUSEN ADISKIDEAK, HAMABI APOSTOLUAK. BERE
ONDOAN EGON ZITEZEN AUKERATU ZITUEN JESUSEK.

JESUSEN ADISKIDEAK, BETANIAKO HIRU ANAI-ARREBAK:
LAZARO, MARTA ETA MARIA. JESUSEK BISITATU ETA BEREN ETXEAN
ATSEDEN HARTZEN ZUEN

BESTE HAINBAT ADISKIDE: GAITXOAK, ESKALEAK,
BEKATARIAK, EMAKUMEAK, HAURRAK...

ETA, GU GEU, JESUSEN ADISKIDEOK. JESUSEK GAUR ERE
ADISKIDEEN BILA, BERE BIZIMODUA BIZI NAHI DUTEN HAUR, GAZTE ETA
HELDUEN BILA DIHARDU

IV. Eranskina

